

## ABENDUALDIKO III. IGANDEA (C)

### Otoitza

Jainko Jauna, ikusten duzu zeure herria,  
zeure Semearen jaioteguna zintzoki itxaroten;  
iguzu, arren,  
Eguberritako salbamen miragarriaren zorionera irits gaitzela  
eta pozik haundienaz ospa dezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: So 3, 14-18a

*Jauna pozez jauzika dabil zuregatik.*

Sofonias Profetaren liburutik

Egin poz irrintzi, Siongo alaba!  
Egin oihu alai, Israel!  
Poztu zaitez bihotz-bihotzez,  
Jerusalengo alaba!  
Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia,  
atzerarazi ditu zure etsaiak.  
Jauna izango da Israelgo errege zure erdian;  
ez duzu gehiago beldurrik izango.  
Egun hartan, honela esango zaio Jerusalem:  
«Ez izan beldurrik, Sion!  
Ez bitez erori zure eskuak!  
Jauna, zure Jaungoikoa, zure erdian dago.  
gudari salbatzaile!  
Pozaren pozez alaitzen da zuregatik;  
maite zaitu eta pozez jauzika dabil,  
jaiegunez bezala».

ERANTZUN SALMOA: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6

R/.

**Goretsazue irrintzika,  
haundi baitago Israelgo Santua  
zure erdian.**

Hara, Jainkoa da nire salbatzaile;

badut uste on eta ez naiz beldur.  
Jauna baita nire indar eta kemen,  
Bera izan da nire salbamen. R/.

Aterako dituzue urak pozetan,  
salbamenaren iturrietan.  
«Eskerrak Jaunari, Haren izena oihu egizue.  
Ezagutarazi herrietan Haren eginen bikainak,  
iragar ezazue Haren izen garaia. R/.

Kanta Jaunari, egin baititu aipatzekoak,  
ezagutu bezate hau lurbira osoan.  
Sionen bizi zaretenok, goretsazue irrintzika,  
haundi baitago Israelgo Santua zuen erdian». R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 4, 4-7

*Hurbil da Jauna.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Zaudete beti pozik Jaunarengan; berriro diotsuet, zaudete pozik. Ezaguna izan bedi guzti guztientzat zuen bihotz zabala. Hurbil da Jauna. Ez eduki ezeren kezkarik; baizik eta beti eta beti zuen esker onezko otoitz eta eskarrietan, agertu zeuen eskabideak Jaungoikoari. Eta gogoeta guztiak baino haundiagoa den Jaungoikoaren bakeak, gordeko ditu zuen bihotzak eta zuen gogapenak Kristo Jesusi lotuak.

EBANJELIOA: Lk 3, 10-18

**Aleluia:** Lk 4, 18

R/.

V/.

nau. R/.

Aleluia.

Jaunaren Espiritua niregan dago,  
behartsuei berri ona ematera bidali

*Zer egin behar dugu?*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, honela galdetzen zion jendeak Joani: «Zer egin behar dugu?»

soineko dituenak, eman biezaio bat, ez duenari; eta jatekorik duenak, egin beza berdin».

Etorri zitzaizkion zergalari batzuk ere bataioa hartzera, eta honela galdetu zioten: «Maisu, zer egin bear dugu?» Eta berak esan zien: «Ez eskatu erabakia dagoena baino gehiago».

Gudari batzuek galdetu zioten: «Eta guk, zer egin behar dugu?» Berak erantzun: «Ez behartu inor gogorkeriaz; ez ibil salaketan dirua ateratzeko; etsi baizik, daukazuen irabaziarekin».

Herria kezkatan zegoen, eta beren baitan galdezka, Joan hura ez ote zen Kristo bera. Joanek honela erantzun zien guztiei: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baina badator ni baino ahaltsuago dena, ni ez bainaiz inor Haren oinetakoen lokarriak askatzeko. Hark Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan dauka sardea, larraina garbitzeko eta garia mandiora biltzeko; lastoa, berriz, itzal ez daitekeen sutan erreko du».

Hauek eta beste gauza asko esanez, berri ona erakusten zion herriari.

### **Oparigaien gainekoa**

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure eskaintzak,  
eta bete ezazu guregan, sakramentu honen bidez,  
zeure salbamen egintza.

Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko I.a edota

II.a

### **Jaunartze ondorengoa**

Jauna, zure errukiari deika gaude:  
hartu dugun sakramentu honek  
senda gaitzala gure ohitura txarretatik,  
eta datozkigun jaietarako presta gaitzala.

Jesu Kristo.